



## ◆ MENDIZALE ASTEA Angel Belda eta Iñaki Sanz-Azkuek proiektzioak, gaur

Bi hernaniar protagonista izango dira gaur Biterin, 19:30etatik aurrera. Pirineotako eta Picos de Europako bazterrak erakutsiko ditu Angel Beldak. Iñaki Sanz-Azkuek Hernaniko naturari buruzko irudiak emango ditu: Aranzadiak espreski egindako 15 minutuko montajea. ||

## LIBURU AURKEZPENA GAUR: 'MAIZALES BAJO LA LLUVIA'

# Gerra Zibileko frentean, Marcelo Usabiaga gudariarekin eta Aitor Azurki idazlearekin

- Aitor Azurkik idatzitako liburua aurkeztuko dute gaur, 19:30etan, Biterin. Hamaika elkarrizketa dira, Gerra Zibilean frentean ibilitako gudariei eginak.
- Tartean dago, 95 urteko Marcelo Usabiaga hernaniarra.
- Gaur, Biterin izango da Usabiaga liburua aurkezten, Aitor Azurkirekin batera.

GERRA Zibilean frentean ibilitako hamaika gudari elkarrizketa egin die Aitor Azurki donostiarrak, eta liburua bat osatu du horrekin: *Maizales bajo la lluvia*. «Historio asko galdu dira, baina oraindik jendea badago, garai hura bizitu zuena, eta hitz egiteko gogoz». Gaur, 19:30etan, Biterin.

### Usabiaga, komunisten batailoian ibilia

Hamaika elkarrizketa egin ditu Azurkik, alde errepublikarrean ibilitako euskaldunei eginak. Horietako bat, Hernanin izango da gaur: Marcelo Usabiaga. 95 urteko hernaniar honek komunisten batailoian borrokatu zuen. 21 urte kartzelan pasea, anaia fusilatua... oraindik ere indarrez kontatzen ditu orduan bizitutakoak.

«Ahal dugun guztia errekuperatu behar dugu» Aitor Azurki kazetariak aitona gudaria zuen, eta haren anaia gerrako haurra. Berak dio, oso gutxi kontatu ziotela kontu horiei buruz, eta grina zeukala historia hori biltzeko. «Aiton-amon hauek direlako Gerra Zibileko azken bozera-maileak».

### BIGARREN EDIZIOA:

Aitor Azurkik apirilean argitaratu zuen liburua, eta 1go edizioa agortu egin zen. 2garren edizioa atera du, eta herriz herri dabil, aurkezten. Katalunian eta Valentzian aurkeztuko du berehala.



Marcelo Usabiaga gudariak hitz egingo du gaur, gerrako frenteko kontuei buruz. Argazkian, Donostiako Kortxoenea Gaztetxean hitzaldia ematen, Aitor Azurki idazlearekin.

### MAIZALES BAJO LA LLUVIA - BI PASARTE:

**Marcelo Usabiagaren** testigantza, atxilotu berri, hila-betez Ondarretako kartzelan:

«Eguneko hogeita lau ordu-tan bakarrik zeldan, aislatuta, juizioaren zain... seguru nengoen fusilatu egingo nindutela, iheslaria nintzelako, eta gerrilerro! Etengabe buruan nerabillien nola erreakzionatuko nuen hilko ninduen ejekuzio-pelotoiaren aurrean: paretean jarri eta froga egiten nuen, entsaiatu.

Konplejua neukan, ez ote nintzen gai izango firme mantentzeko, zutik».

**Manuel Goenaga**, usurbildarra. 1936ko uztailaren 18a, larunbata:

«Biharamunean, igandez, Añorga eta Errekaldeko festak ziren. Joan ginen. Bidean ginela, kamioi bat, Eibartik zetorrena, Eibarko errepublikarrez beteta. Errekalden geratu ziren, Arpieta baserrian. Hango seme-

ak kotxea bazuen (garai hartan ez zen normala) eta neskarekin joan zen paseatzera. Arratsalde Errekaldera etorri zen, eta eibartarrek alto eman zioten, dokumentazioa eskatzeko edo... Bera zijoan txofer, eta izutu egin zen. Ez zekien zein ziren eta Hernani aldera ospa egiten saiatu zen. Eibartarrek tiro egin zioten atzetik, eta andregai hil zioten. Hala hasi zen dena».

Horrela hasi zen guda, Goenagarentzat.

Argazkia: Makoki Groups

### ❖ MILAGROSA

#### Asanblea orokorra gaur, Inmakuladan

Milagrosa Amabirjinaren taldeak Asanblea Orokorra du gaur, 16:30etan, Inmakulada ikastetxean. Urtero bezala, zeladorak bilduko dira, eta urteko kontuetaz ariko dira bertan. ||

### ❖ SANTA ZEZILIA

#### Bi kontzertu, datorren igandean

Santa Zezilia egunaren bueltan, bi kontzertu izango dira igandean Hernanin. Batetik, musika eskolako akordeoi ikasleek joko dute, 12:00etan, Milagrosan. Bestetik, eskolako txistulariek joko dute, Hemasax taldearekin batera, 12:30etan, Arkupetan. ||

### ❖ ERAKUSKETA

#### Nagore Legarretaren argazkiak, ikusgai

Nagore Legarreta hernaniarrak argazki erakusketa jarri du, Gros-eko Warung jatetxean. *Hondartzan* izeneko bildumako argazkiak dira. ||



OSTEGUNAK: 19:00ETATIK 21:00ETARA  
GARAGARDO  
**PINTA KAÑAREN PREZIOAN !!**


- IMPORTAZIOZKO GARAGARDOETAN AUKERA ZABALA,  
LAGUNDU ITZAZU GURE UKONDO ETA SALTXITXA ZORAGARRIEKIN.

- PROBATU AL DITUZU GURE ENTSALADA BEREZIAK ?

**HOEGAARDEN PROMOZIO BEREZIA !! ZATOZ !!**



ezkati



ileapaindegia

Iturregi, 4  
Hernani  
943 55 65 56  
Hartu ordua



**Egunero  
Menuak**

Kardaberaz, 11

tf: 943555724

**TELEFONOAK** ● **Taxiak:** 943 550093 ● **Udaltzaingoa:** 943 248900 ● **DYA:** 943 464622  
 ● **Autobusak:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037  
 ● **Anbulatorioa:** 943 006666 - 943 203020 ● **Jokalarri anonimoak:** 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103  
 ☩ **FARMAZIAK** ● **Egunez:** Gomez Kale Nagusia 14 - 943 554892 ● **Gauz:** Aizpuru Latsunbeberri 11 - 943 336077

**EGURALDIA**  
**GAUR** Goizeko lehen orduetan lainotuta egongo da. Arratsaldean, berriz, urdinguneak zabalduko dira. Ekialdeko haizea ibiliko da. Min.10° / Max.19°.  
**BIHAR** Nahiko garbi egongo da zera. Hegoaldeko haizea nagusituko da, eta berriro ere indartu egingo da. Min.11° / Max.20°.

## ANTZERKI ZIKLOA BITERIN

# Down sindromeari buruzko antzerkia, besteak beste, aurtengo zikloan

Astelehenetik asteazkenera hiru antzezlan izango dira ikusgai, 20:00etan Biterin. Sarrerak salgai daude dagoeneko, 5,10 euroan.

ANTZERKI Zikloa astelehenetik hasiko da. Ohi bezala, hiru antzerki ezberdinez gozatzeko aukera izango dute Hernaniko antzerkizaleek. Eta horien artean, Down sindromeari buruzko antzezlan izango da ikusgai: *Etzi*. Asteartean izango da hori. Antzezlan guztiak bezala, 20:00etan izango da Biterin.

Umorea, intriga eta drama uzartzen ditu *Etzi* antzezlanak. Bruno (Gorka Zufiaurre) Down sindromea duen gazte baten eta bere familiaren bizimodua kontatzen da.

Atzegi-Aurrerak dei egiten die herritarrei antzerkia ikustera joateko, «adimen urritasuna duten pertsonak eta euren familien bizimodua ulertzen laguntzen duelako». Ikastetxeetako arduradunei ere dei berezia egiten diete, «gaia landu nahi izanez gero, interesgarria delako».

**Vito Rogadorekin, 'Carrera de obstáculos', hasteko** Antzerki Zikloa astelehenean hasiko da, *Carrera de obstáculos* antzezlanarekin. Bertan, Hernanin bizi den Vito Rogado aktoreak eta Diana Peñalver aktoreak, eguneroko zailtasunei aurre egiten dieten lau emakumeren istorioak kontatuko dituzte.

**Bi musikariren istorioak, asteazkenean** Bi musikaririk munduan zehar bizitutako istorioak kontatuko dituzte Ramon Agirre eta Inaxio Tolosa aktoreek, *Xentimorik gabe* antzezlanarekin. Asteazkenean izango da ikusgai. Sarrerak salgai daude 5,10 euroan, Biterin. ||



Gorka Zufiaurre eta Asier Oruesagasti, 'Etzi' antzezlaneko aktoreak.

**Azaroak 21, astelehena**  
**'CARRERA DE OBSTACULOS'**  
**Konpainia:** Gesteatral  
**Aktoreak:** Vito Rogado, Diana Peñalver  
**Gidoia eta zuzendaria:** Teresa Calo  
**Hizkuntza:** Gazteleraz  
*Eguneroko zailtasunei aurre egiten dieten lau emakumeren istorioak jasotzen ditu komedia honek. Katarsi bat da. Aukera bat gure arazoez barre egiteko; barre egiteak bizitza luzatzeaz gain, zama arintzen ere laguntzen baitu.*

**Azaroak 22, asteartea**  
**'ETZI'**  
**Konpainia:** Dar Dar Produksioak  
**Aktoreak:** Joxe Ramon Soroz, Pilar Rodriguez, Gorka Zufiaurre eta Asier Oruesagasti  
**Zuzendaria:** Asier Zinkunegi  
*Umorea, intriga eta drama uzartzen du Etzi antzezlanak. Horrez gain, Down sindromea duten pertsonengana eta beraien familiengana hurbiltzen lagunduko du. Joxe Ramon Soroz eta Pilar Rodriguez aktore ezagunek aiton-amonena egiten dute. Mattin (Asier Oruesagasti) eta*

*Bruno (Gorka Zufiaurre) bilobekin hamaika pasadizo bizi dituzte eta antzezlanean zehar atzera begiratuko dute elkarrekin. Haien eguneroko bizitzari buruzko tragikomedia da, bizitza den tragediatik sortutako komedia, alegia.*

**Azaroak 23, asteazkena**  
**'XENTIMORIK GABE'**  
**Konpainia:** Bederen bat  
**Aktoreak:** Ramon Agirre eta Inaxio Tolosa.  
*Badira bi hamarkada gutxi gorabehera elkartu zirela estreinako aldiz Ray eta Nick izeneko musikari eta kontalaria. Garai horietan, binaka ibiltzen ziren artistak, guardia zibilen antzera: Simon & Garfunkel, Al Bano eta Romina Power, El Dúo Dinámico, Pantxoa eta Peio... Haien ere bikote jaio ziren eta amaigabeko birari ekin zioten munduan zehar. Frantzia, Amerika, Grezia, Errusia, Kamerun, Argentina, Mongolia... Ez dago kontinenterik, ez hiri edo herrixkarik Rayen eta Nicken arteaz gozatu ez duenik. Aurten, baina, herrimina sentitu dute. Gure artean daude, beraz, 20 urteko mundu bira musikareren berri emateko irrikitan.*

## ◆ ZINE KLUBA

### Haurrei egindako eraso sexualak gaitzat, 'No tengas miedo' pelikulan

Montxo Armendarizen *No tengas miedo* pelikula izango da gaur ikusgai, 21:30etan Biterin. Txikitan eraso sexualak jasan dituen gazte batean oinarritzen da kontakizuna. ||

## ◆ MUSA - ELKARTEARTEKO XXVII. TXAPELKETA Finalerdiak jokatuko dira gaur

Hernaniko Elkartearteko Mus Txapelketako finalerdiak jokatuko dira gaur, Gure Txokon: Ur Mia A (Iñaki Santa Cruz-Iraitz Santa Cruz)/Karobi A (Paco Gallego-Patxi Santana); eta Ur Mia B (Jose Kaloka-Angel Pikabea)/Elizatxo B (Bixente Goikoetxea-Juan Miguel Goikoetxea). Astelehenean finala jokatuko da eta azaroaren 25ean, afaldu eta sariak banatuko dituzte. ||

## ◆ XAKEA

### Martiarena lider, oraingoz

Hernaniko Xake Txapelketa herrikoari bi jardunaldi falta zaizkio, eta oraingoz, Martiarena dijoa lider, 5 partidak irabazita. Laurekin ditu atzetik: Navascues, Manso, Breogan, eta Ijurko. ||

### 5. jardunaldia - Emaitzak

Navascues 0:1	Martiarena	Sito	0:1	Corbella
Manso 1:0	Apeze	Benito	0:1	Arandia
Ixidro 0:1	Breogan	Lizaso	0:1	Udakiola
Ijurko 1:0	JR Altuna	Rosel	0:1	Elosegi
Jon Altuna 1:0	Arrieta	Berrotaran	0:1	Cortes
Gastesi 0:1	Arriaran	Alejandro Romero	1:0	Bueno
Kofee 0:1	Julian Romero	Arana	0:1	Vergara
Lujanbio 0:1	Andreas	Sanchez	0:1	Azabal

## ◆ SASOIKO

### Norberaren osasuna hobeto zaindu eta ezagutzeko hitzaldia, bihar

Sasoiko zentruak antolatuta, hitzaldia izango da bihar: *El ego y las pasiones. Una introducción al engrama*. Bertan, norberaren osasuna hobeto zaindu eta ezagutzeko azalpenak emango dira. Hitzaldia, arratsaldeko 19:30etan izango da Sasoikon (Marieluts, 4 behe), doan. Informazio gehiago: 656 721 492. ||

## ◆ IRAGARKI MERKEAK ◆

**Garajea salgai** Gartzia Goldaraz kalean, Mañe y Flaquer aldera. Deitu: 627 810 344  
**Etxebizitza salgai.** Elizatxo auzoan, 90 m<sup>2</sup>, 3 logela, egongela eta jantokiarekin, eta 200 m<sup>2</sup>-ko terenoa. Argitsua eta toki lasaia. Interesatuak deitu: 675 179 804  
**ETXEKO KONPONKETAK** egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antena ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.  
**YOLANDA ESTETIKA ZENTRUA.** Fotodepilazio berria, prezio bereziak eta pertsonalizatuak. Fotorejuvenecimiento, Dieta pertsonalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzailea. Atzietan 2, behe. Tel. 943 55 32 78.  
**Alicia C.C.:** Modu pertsonalean eta profesionalean garapena lortzeko: Coaching, PNL, erlajazioak, Flores de Bach, hipnosia... Deitu: 943 33 28 94 / 653 267 146. (Agustindarren plaza, 4)  
**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berbebrala, reflexologia, auriculoterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

**urrolalde**  
 Orkologa kalea 14 20120 Hernani  
 Telef. 943157066 [urrolalde@urrolalde.com](mailto:urrolalde@urrolalde.com)

**KURTSOAK** (Enderaz)

- INFORMATIKA:** Oinarriko ofimatika, Excel, Acces, Internet, Diseinu Grafikoa, Web Diseinua, AUTOCAD.
- ADMINISTRAZIOA:** Nominak, Kontabilitatea
- HIZKUNTZAK:** INGELESA: Izena emateko epea zabalik. Azken plaza ibreak!  
 A1- maila: Astearte eta ostegunetan 19:00tik 21:00ra  
 A1+ maila: Astelehen eta asteazkenetan 17:00tik 19:00ra  
 B1 maila: Astearte eta ostegunetan 17:00tik 19:00ra  
 B2 maila: Astelehen eta asteazkenetan 19:00tik 21:00ra

**JOSU ALKORTA**  
 harategia

**JABUGORIK ONENA...  
 ..BENETAKO JABUGOAI!**

Nafar kalea 11 Tel.: 943 551 681

**BOZKATU**  
**amaiur**